

UDAL ORDENANTZEA, KALE ETA LANDA-AUZOETAKO JAIK OSPATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMOTEA ARAUTZEN DAUENA

HITZAURREA

Azken urteotan Bermeon gero eta handiagoa da kale eta landa-auzoetako jaiak ospatzeko dagoan interesa. Interes hori kale bateko edo gehiagoko, zein landa-auzoetako biztanleek zaindaritzat daukiezan santuen jaiak dirala-eta sortu da. Gure herrian beti izan dogu fenomeno hau, aurreko erregimenean behera egin eban arren. Gaur egun, ostera, barriro indar handia hartzen doa.

Horren adibide dogu santu baten irudia leku ikusgarrian daukien kaleen kopuru handia. Egoera bitxi hau esan leikegu, ia ziurtasun osoz beste inon horrenbesteko indarrez ez dagoan ohiturea dala. Ganera, *Bermeo* aldizkarian argitaratutako lan dokumentatua argi ikusten da, eta bertan 1982. urtera arte ipinita egozan irudi guztien argazkiak agertzen dira.

Urte osoan zehar, santu baten zaintzapean dagozan kale eta landa-auzoetako biztanleek, normalean, santuaren eguna heltzean, herrian eragin handiagoa edo txikiagoa daukien ekitaldiak eta jaiak antolatzen dabez.

Udalak fenomeno hau mantendu behar dau gure herrian aparteko gertakaria da-eta, lehen aitatu dogun moduan ez dalako beste inon hain ugari eta horren sarri ikusten behintzat.

Horregaitik, gaur egunera arte, honelako ekimenak babestu dira diru laguntzak eta ekarpen materialak emonaz, esaterako argi publikoaren haritik argindarra hartzeko baimena, hesiak, oholtzak edo jardunaldietarako kiosko mugikorrak,...

Ikusita, kale eta landa-auzoetako ekitaldi horreek hartzen doazen indarra eta, ganera, horren ugari eta desbardinak izanda, beharrezkoa da udalaren esku-hartzea egokiagoa eta eraginkorragoa izateko jai honeen inguruko guztia behar dan moduan arautzea. Horretarako Udal Ordenantza hau daukagu.

Udal Ordenantzan, diru laguntza mueta bi emoteko aukerea agertzen da. Bata finkoa, udalak urtero bere aurrekontuan finkatuko dauena; eta bestea, kasu batzuetan finkoa osotuko dauena, eskari bakotxaren berezitasunak ikusi eta gero emongo dana, hain zuzen be. Holan, bardintasun eta ekitate printzipioak guztiz bermatuta geratuko dira.

Beharrezkoa da, udalak kasu bakotxean solaskide jakin batzuk eukitea edozelako gorabeheraren bat gertatzen danerako, eta bai emondako diru laguntzearen inbertsinoa kontrolatzeko be. Hori holan izanik, beharrezkoa da kaleetako biztanleak arduradun batek edo gitxienez bi pertsonak osotutako ordezkatzeari izatea.

Ahalegina egin da eskaera agirien izapidetzea eta emondako diru laguntzea zelan gastatu dan justifikatzeko izapide guztiak ahal danik eta errezen egiten. Azken honetarako, nahikoa izango da honakoak aurkeztea: egin diran gastu guztien zerrenda sinple, edota emondako diru laguntza osoa gastatu dala egiaztatzen daben ordainagirien kopiak.

Argi geratzen da ordenantzan, ez dirala kontuan eukiko diru laguntza osogarria finkatzerako orduan, edozelako ekitaldi xelege eta bitxietan parte hartzen daben pertsonaien nabarmentasuna ezta ospea be.

Ekitaldi batzuk errepikatzearen ondorioz beti era berean, estatus berezia hartzen dabe eta denporea igaro ahala instituzionalizatu eta balio handia emonaz, mantendu eta kontserbatzen dira. Adibide moduan Madalen Egunean teilea itsasora jaurtitzeari dogu. Herrian honelako ekitaldiak izatea gure kultura aberasteko bide bat da. Horregaitik, aukera hori jasoten da ordenantzan eta mueta horretako egoerak baloratzen dira diru laguntzak emoteko orduan. Holan,

biztanleen irudimena bizten da, ekitaldiak sortzeko eta behin sortuta gero, mantentzeko.

Udal Ordenantzan kaleak apaintzeari be garrantzi handia emoten jako. Interesgarria danez apaingarriak kaleetan uda osoan mantentzea, beharrezkoa da bagilaren 1etik irailaren 28ra arte apainketak kaleetan mantentzea. Azken data hau ipini da irailaren 29an Mikel Deunaren jaia dalako, eta holan jai hau negualdian sartzeko.

Almike auzoak, Bermeo herriaren hasierako sorgunea izan leitekeelako, eta ganera bertan Bermeoko zaindaria dan Almikeko Andra Mari eleiza dagoalako, herriko jaien barruan leku garrantzitsua izaten jarraitu behar dau.

Ondorioz, Almike auzoan antolatzen diran jaiak tratamendu berezia izango dabe, herriarenak be badiralako eta udalaren egitarau ofizialean be agertzen diralako.

Azkenik, esan beharra dago landa-auzoetako jaietan, auzo bakotxeko alkateek hartuko dabela antolakuntza guztiaren ardurea.

1. artikulua

Udal Ordenantza honek jaiak eta ekitaldi publikoak antolatzeko diru laguntzak emotea arautzen dau. Diru laguntzak udalerrri honetako kale baten edo gehiagotan eta landa-auzoetan zaindariaren jaia ospatzeko edo beste arrazoi batzuengaitik antolatzen diran jai eta ekitaldi publikoak antolatzeko emongo dira.

2. artikulua

Diru laguntzearen zenbatekoa Jai batzordeak Kultura eta Hezkuntza batzordeari proposatuko deutso urtero, eta azken honek Gobernu batzordeari egingo deutso erabagi-proposamena.

3. artikulua

1. Eskaera-orriak programatutako ekitaldiak ospatzeko eguna baino hile bi lehenago gitxienez aurkeztu beharko dira, eta eskaera-orriari agiri honeek erantsi beharko jakoz:

a) Ospatuko diran ekitaldi eta jai guztien egitarau zehatza, ordutegia, lekuak, parte hartuko daberen taldeak eta abar zehaztu beharko dira.

b) Ekitaldi bakotxaren aurrekontu zehatza, parte hartuko daberen ordainsaria, emongo diran sariak, kaleak eta landa-auzoak apaintzeko gastuak, girotze musikearen aurrekontua, etab.

2. Eskaera-orria diru laguntzea emongo jaken kaleetako hiru auzokidek gitxienez izenpetu beharko dabe; horreek izango dira batzorde antolatzailea osotuko daberenak. Euren artean, bat auzokide guztien ordezkari izendatuko dabe eta berari emongo jako onartutako diru laguntzea.

Landa-auzoetan jaiak ospatzeko, barriz, eskaria auzo bakotxeko alkateak egingo dau.

4. artikulua

Behin eskaria aurkeztu ostean, Jai batzordeak aztertu eta proposamena egingo dau, ondoren Fondoaren kontu-hartzaitzak gainbegiratuko dau eta oneretxia izan ezker Alkatetzara bialduko da honek erabagi daian.

5. artikulua

Udalak diru laguntzea emotea erabagiten badau, jaiak hasi baino zazpi egun lehenago gitxienez ordainduko dau diru laguntza hori.

6. artikulua

Programatutako ekitaldiak amaitzen diranetik hilebeteko epean, batzordeko arduradunak edo batzordeak edo halan danean auzoko alkateak, izandako gastu guztien zerrendea aurkeztu beharko dau udaletxean, edo osterantzean, udalak emondako diru laguntzearen zenbateko bera edo handiagoa gastatu dala egiztatzan daben beharrezko egiaztagiri edo ordainagiriak aurkeztu beharko dauz.

7. artikulua

Emondako diru laguntzea justifikatzen ez bada aurreko artikuluan aitaturako moduan, udalak ordezkariari eta batzordeari edo auzoko alkateari jagokoa erantzukizuna eskatu ahal izango deitso.

8. artikulua

1. Diru laguntza honeek emoteko udalak kontuan hartuko dauzan erispideak, batez be honako baldintzetan oinarrituko dira:

a) Programatutako ekitaldien egokitasuna, izaerea eta garrantzia.

b) Herrian, oro har, jaiak daukan arrakastea, harrerea eta sustraituta dagoan be ikusiko da.

c) Programatutako ekitaldiek izan leikien herritarren parte-hartzea.

d) Eskainiko dan bermea jai hori egin egingo dala eta jentearen parte-hartze oparoa be ziurtatuko da.

e) Programatutako egitarauaren garrantzia eta aniztasuna be kontuan hartuko dira eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dagozan ekitaldiak eta jaiak badira.

f) Programatutako ekitaldien euskerearen erabilerea. Euskerearen Normalkuntzarako Udal Ordenantzeak araututakoaren arabera publizitatea, iragarkiak, idatziak, ohar eta gainerakoak euskeraz idatzi beharko dira, edo beharrezkoa danean, elebidun.

Halanda be, euskereari lehentasuna emongo jako eta euskerazko letren tamaina bikotxa izango da. Ahozko mezuen kasuan be, erderaz zeozer esaten bada, euskeraz hiru bider errepikatu beharko da.

Diru laguntzeari jagokonez, diru laguntzea hartuko dabenek aurrerago aitatutako baldintzak bete beharko dabez. Holan ba, udalari jagoko horretarako neurriak hartzea eta horreek betearazotea.

Udalaren instalazino eta materialak erabilteko be, arestian aitatutako baldintzak bete beharra egongo da. Esaterako, udalak frontoia, kiroldegia eta beste instalazino batzuk erabilten itzi ezkeru, edota hesiak, oholtzak eta abar erabili ahal izateko baimena emon ezkeru, euskerearen erabileraren ganeko gorabeheren barri emon beharko deutse interesdunei baimen-orrietan.

Aitatutako guztiaren kontrola udaleko Euskera Sailari jagoko eta bai ahozko zein idatzizko adierazpenak euskeraz egiteko laguntzea behar izan ezkeru, udaleko Euskera Sailera jo ahal izango dabe.

g) Denporan iraun eta mantentzen joan dan ekitaldi konkretua bada, eta gainera jentearen harrera ona dala-eta, diru laguntzea emongo jakon kaleko ekitaldi tipikoa eta bereizgarria bada be, kontuan hartuko da.

h) Udalak emongo dauen materiala.

i) Kasu bakoitzean udalak baloratzea beharrezkotzat jotzen dauzan bestelako baldintzak.

2. Egitarauan agertutako ekitaldien iragarpen hutsak ospe eta ikusmin handia sortu arren herrian, horrek ez dau udala baldintzatuko diru laguntzea emoten udalaren eretziz neurritz kanpoko edo gehiegizkoa bada ekitaldi hori kale eta landa-auzoetako jaiak antolatzeko orduan.

3. Bermeoko jai nagusiak eta kale edo landa-auzoetako jaiak aldi berean diranean, jai nagusietan programatutako ekitaldiek lehentasuna eukiko dabe, eta kale eta landa-auzoetako ekitaldiek ezingo deutesie jai nagusiei itzalik egin.

9. artikulua

1. Kaleei emongo jakezan diru laguntzetarako, ezinbestekoa izango da auzokideen artean kalea dotoretu eta apaintzea; apaintze hori programatuta dagozan jaiak hasi baino astebete lehenago amaituta egon beharko da.

2. Horretarako, tradizio kutsua daukien xehetasunak, formak, motiboak eta objektuak kontuan hartu beharko dira, baita jagokon jaiari eta zaindariari jagokozonak be.

10. artikulua

1. Apaingarriak ipinterako orduan, ez jake eragingo ezelako kalterik eraikinei, ezta ondasun publiko nahiz pribaduei, batez be eraikin horreek, arkitektura eta arte ezaugarriak dirala-eta, babes berezia merezi badabe.

2. Ahalegina egingo da istripurik ez gertatzeko, batez be honelako kasuetan: jausi, urradura, elektrizidade matxurak, fatxadetako urradura eta altxatzeetan zein beste edozelako kasuetan. Esan beharra dago, batzordea osotzen daberen auzokideek, eta landa-auzoen kasuan, auzoetako alkateek eukiko dabela erantzunkizuna. Antolatzaileek erantzukizun zibilaren aseguru kontratu bat aurkeztu beharko dabe aurkeztutako jai programak halan eskatuko baleu.

11. artikulua

Bagilaren 1etik irailaren 28ra arte kaleetan ospatzen diran jaietan apainketea irailaren 28ra arte mantenduko da.

Irailaren 29tik maiatzaren 31ra arte ospatzen diran jaietako apainketea, programatutako jaiak amaitu ostean 10 eguneko epean kendu beharko da.

12. artikulua

Gabonetan, kaleak argiakaz apaintzeko, udalak inguruko argi publikoaren haritik argindarra hartzeko baimena emongo dau.

Bermeon, 2003ko urriaren 30ean
ARGITRATUTA bao 40 2004ko otsailaren 27an